

KARRIKARATU-II

2024



POLIZIA INDARKERIAREN

URTEKO TXOSTENA

TXAGO
ESTATU INDARKERIAREN ERREGISTROAK

ESKER ONAK

Eskerrak eman nahi dizkizuegu Txagoren sorreratik gaur egun arte parte hartu duzuen eragile eta kideoi, zuek gabe hau litzateke posible izango. Bestalde, babesak adierazi nahi dizuegu egunero estatuaren indarkeriari aurre egiten ari zareten guztioi, erresistentziak eraiki eta alternatibak sortzen dituzuenei, baita horrelako gertaeren aurrean bidelagun zareten horiei ere. Azkenik, besarkadarik beroena txosten hau sortzeko bizipenak konpartitu dituzuenei.

Txosten hau lan kolektibo bat da, pertsona askoren artean eta jendearengana heltzeko helburuarekin sortu dugu. Beraz, libre sentitu fotokopiatu eta zabaltzeko.

Txosten honetan argitaratutako informazioa ezin da irabazi indibidual edo akademikoak izango dituen lanetarako erabili. Nolabaiteko irabazirik egonez gero, polizia indarkeriaren aurka diharduten antolakundeei bideratu beharko zaie.

Informazio hau beste lan baterako erabiliz gero, eskertuko genuke Txago aipatzea eta gurekin harremanetan jartzea:

Posta elektronikoa: txagogipuzkoa@riseup.net

Instagrama: [@txago.gipuzkoa](https://www.instagram.com/txago.gipuzkoa)



AURKIBIDEA

HASIERAKO OHARRAK.....	4
1. TXAGO, ZER DA?.....	5
2. ERREGISTRO PROZESUA.....	6
3. NONDIK HITZ EGITEN DUGU?.....	7
4. JASOTAKO BIZIPENAK.....	9
4.I. POLIZIA ETA ARRAZAKERIA.....	14
4.II. POLIZIA ETA BIZILEKUA.....	20
4.III. POLIZIA, MILITANTZIA ETA PROTESTAK.....	22
4.IV. INDARKERIA ERREAKTIBOA.....	28
4.V. POLIZIA ETA OSASUN MENTALA.....	29
4.VI. POLIZIA ETA ARMAK.....	30
ONDORIOAK.....	35
ERANSKINAK.....	36

HASIERAKO OHARRAK

1. Poliziaren edo estatuaren salaketa posibleak ekiditeko asmoz, honakoa adierazten dugu:
 - 1) Bizipenen erregistroan triangulaketa lana urria izan da (lekukoak+bizipenak+frogak).
 - 2) Gure lana bizipenak jaso eta txosten honetan horien laburpena egitea izan da.
 - 3) Ez dugu baieztapenik egiten poliziaren indarkeriaren erabileraren inguruan, hemen dagoena biztanle batzuen bizipenetan oinarritua dago.
2. Ez dugu akademikoki edo juridikoki esanguratsua izango den ikerketa bat egiteko asmorik, jasotako bizipenak zabaltzekoa baizik. Hala, pertsonak berak indarkeria gisa bizitzako hori jo dugu indarkeriatzat.
3. Gure lana erregistroa den heinean, txostenean ez dugu jasotakoaren irakurketa sakonik txertatu; kolektibo bakoitzak informazio haxe bere irakurketa propioa egiteko baliatzeko aukera izan dezan.
4. Bizipenenen gehiengoa gizon zisei dagokio. Jakin badakigu poliziaren indarkeria mota aldatu egiten dela honek gorputzen gainean irakurtzen duen genero-identitate eta adierazpenaren arabera. Txosten honetan ez dugu horren inguruko irakurketa egiteko informazio nahikorik jaso, horregatik ez dugu espreski auzi honi eskanitako atalik osatu. Hala ere, bizipenak kontatu ahala egingo diegu erreferentzia auzi honen ertz batzuei. Azpimarratzen dugu gure datuak partzialak direla. Baldintzatuta daude gugana heltzen den jendearen eta geure irismen propioaren arabera. Alabaina, guk emakume eta genero disidenteen bizipen kopuru esanguratsu bat jaso ez izanak ez du esan nahi horiek gertatzen ez direnik. Gainera, guk jaso ditugun biizpen gehienak espazio publikoan eta kalean gertatu dira. Horrelako tokietan ikusi ohi dugu poliziaren jarduna egunerokotasunean. Alabaina, espazio publikoaren okupazioak zerikusi estua du maskunilitatearekin. Hainbat pertsona espazio publiko horretatik kanpo geratzeak ez du esan nahi poliziak horiek ere jazartzen ez dituenik. Are, kasu horietan biolentzia are inbisibilizatuagoa egon daiteke.
5. Txago ez da bere baitan antiarrazismoan aritzen den kolektibo bat eta kideon gehiengoa zuriak eta bertakoak gara. Kontziente gara toki honetatik egin dugula gure interpretazioa eta kokapen honetatik ez dugu gure burua zilegi ikusten poliziaren indarkeria arrazistaren irakurketa kritikoa egiteko. Azken urteotan Erratiko Camino kolektibo antiarrazistarekin batera aritu gara lanean, indarrak batuz eta elkar lagunduz (Instagram: @erratikocamino).
6. Jasotako gertaeretan ez ditugu beti datu denak eskuragarri izan. Hori dela eta, datu hauetatik ezin da ondorio absoluturik atera.

1. TXAGO. ZER DA?

Txago Donostia eta inguruko herrietan polizia indarkeria erregistratu eta zabaltzeko tresna bat da. Helburu horrekin osatu genuen iaz 2023 urteko erregistroa biltzen zuen txostena. Hementxe helarazten dizugu 2024ean zehar hondutakoa.

Guztira 156 bizipen jaso ditugu 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra. Gertaerei dagokionez, identifikazioak, atxiloketak, mehatxuak, irainak eta umiliazioak, isunak, zelatatzeak, osotasun psikofisikoaren aurkako erasoak, miaketak edota norbere ondasunen inkautazioak jaso ditugu. Gertaerak biltzeko, norbanakoez gain, eragile ezberdinen laguntza berezia jaso dugu, hala nola: Donostiako Harrera Sarea, ASKE antolakundea edo Mugimendu Sozialista.

Txosten honek bost atal ditu. Lehenik eta behin, Txagoren aurkezpen laburra eta gure oinarrien azalpena topatuko dituzu. Bigarren atalean, erregistro prozesua zertan den. Hirugarrenean, poliziaren indarkeriaz nondik hitz egiten dugun azaldu dugu. Laugarren atala datuen azterketari dagokio. Kontuan hartuta indar polizialek estrategia anitz erabiltzen dituztela, sei azpiatal sortu ditugu horiek bildu ahal izateko: (I) Polizia eta arrazakeria, (II) Polizia eta bizilekua, (III) Polizia eta militantzia (IV) Indarkeria erreaktiboa (V) Polizia eta osasun mentala, eta (VI) Polizia eta armak. Azkenik, jasotakoaren inguruko ondorioak eta eranskinak bildu ditugu.

Txagoren oinarriak


Txago egungo indarkeria poliziala jaso, gorde eta zabaltzeko tresna da. Poliziaren jarduna eta indarkeria agerian uztea du helburu nagusitzat proiektu honek. Baita, bide batez, memoria historikoaren bilketan egin den lanari katebegi eguneratu bat batzea ere. Hain zuzen ere, poliziaren legimititatea, proportzionaltasuna eta funtzioa bera zalantzan jartzeko. Baita gure arteko babesa antolatzeko informazioa izatea beharrezkoa dela uste dugulako.

Ez dugu jarraipen juridiko zein psikoterapeutikorik egiteko baliabiderik. Alabaina –eta ahal dugun neurrian— prozesu kolektiboetan bidelagun izateko prestutasuna dugu. Besteak beste, tailerrak egitea, hausnarketarako espazioak irekitzea eta elkarzaintza taldeak dinamizatzea ere izan dira gure jardunaren parte. Hauexek dira gure oinarriak:

1. **Autonomia eta horizontaltasuna.** Erakunde instituzionalizatuetatik at antolatu eta botere-harremanak lantzeko konpromezua hartzen dugu; betiere transfeminismoa, antiarrazakeria eta klasea kontuan harturik.
2. **Militantzia.** Soldatapeko lanaren logikatik at ekin nahi diogu proiektuari. Diru-sarrerak izatekotan, kolektiboentzat bideratuko ditugu (erresistentzia kutxa, adibidez).
3. **Zaintza.** Bizipen bortitz eta traumatikoen lekuko garenez, ezinbestekoa zaigu zaintzarako tresnak garatzea.
4. **Zintzotasuna.** Kideen arteko eta erregistro prozesuan parte hartzen duten pertsonenganako zintzotasuna ezinbestekoa zaigu. Gure indargune eta mugak mahai gainean jartzen ditugu uneoro.
5. **Konfidentzialtasuna.** Bizipenak konpartitzen dizkiguten pertsonen babesa erdigunean jartzen dugu eta inolaz ere ez ditugu horiexek agerian utziko. Datu guztiak zerbitzari lokalean daude gordeta, beharrezko zibersegurtasun neurri guztiekin.
6. **Saretzea.** Errepresio zein estatu indarkeria mota ororen aurka diharduten taldeen arteko saretzean sinisten dugu.

2. ERREGISTRO-PROZESUA

Erregistro-lanak hainbat pauso ditu eta parte-hartzaileen erabakiari dagokio erregistroa egiteko hautatutako bidea. Errelatoak transkribatzearen edota informazioaren lanketa guk geuk egiten dugu. Elkarriketa sakonen kasuan, parte-hartzaileei birbidali eta zuzenketak egiteko aukera zabaltzen diegu, (haienak baitira esperientziak) errebisioa garrantzitsua baita guretzat. Behin dena prest dugunean, zerbitzari lokal batean gordetzen ditugu datuak (segurtasun-neurriak direla eta, ez dugu bilketa-prozesuaren inguruko informazio gehiago emango; zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan). Azkenik, informazio bateratu guztiarekin Karrikaratu txostena idazten dugu urtean behin. Eskuartearen duzun haxe bera.



3. INONDIK HITZ EGITEN DUGU?

Poliziak ez du delitua saihesten, eta hori omen bizitza modernoan hobekien gordetako sekretuetako bat¹. Adituek badakite hori, poliziak ere bai; baina iritzi publikoak ez. Ezin naturalizagoa dugu poliziaren jarduna. Hori auzitan jartzeko moduetako bat da, hain zuzen, polizia zertan dabilen begiratzea.

Segurtasunaren diskurtsoa

Seguraski, segurtasunaren afera da poliziaren irudi publiko hori gehien blindatu duen kontuetako bat. Segurtasunaren izenean justifikatu ohi da poliziaren presentzia, azken urteetan esponentzialki hazi den gastu publikoa eta, are, baita indarkeria poliziala bera ere. Halaber, segurtasunaren izenean hauspotu dira diskurtso erreakzionario, arrazista eta faxistak. Instituzio eta hedabideetatik hasita, sare sozial eta kale mailara heltzeraino –horratx, LQNTCDD taldea. Datuek, ordea, ez dute hori babesten: presentzia poliziala areagoatzeak ez dakar ezinbestean diskurtso horiek bolo-bolo darabilkiten “delikuentzia-tasa” delako hori jaistea. Hori, kontuan izan gabe delinkuentzia-zifrak ere polizia beraren jardunaren menpeko direla. Esan gabe doa, korrelaziorik aipatzekotan bizi-baldintzen okertze, prekarietate, desberdinkeria eta bazterkeriaren eta jarduera deliktibotzat jotzen diren horien arteko lotura aipatu beharko litzatekeela.

Argitu behar da, gainera, “delinkuente” eta “delinkuentzia-tasa”-ri buruzko iruditegia diskurtso kriminalizatzaile, patriarkal eta kapitalistek sortzen dutela. Begirada honen instituzionalizazioak asimilazio- eta perfilazio-praktiken gorakada bultzatu du. Horiexek atzeritarraren irudia marrazten dute, ez soilik kategoria legal/administratibo huts bezala, baita eztabaida publikoaren markoan dagoen entitate gisa ere; eta hala, gizarte osoaren etsai gisa kokatu.

Txosten honetan topatuko duzu poliziaren jarduna ezin dela justifikatu, inondik inora, segurtasunaren aitzakiapean. Besteak beste, pertsona arrazializatuei egindako etengabeko identifikazio eta miaketak. Gure kaleetako egunerokoaren parte dira praktika horiek. Gizartean poliziaren irudi onbera zabaldu bada, hori ez da poliziak indarkeria gutxi aplikatzen duelako, biolentzia horri ezikusiarena egiten zaiolako baizik. Indiferentzia hori ez da, inondik inora ere, ausazkoa.

Polizia zertan den

Poliziaren naturalizazioak, beteak beste, polizia ezinbestean beharrezkoa dela eta hura gabe kaosa besterik egongo ez litzatekeela pentsatzea dakar. Alabaina, polizia ez da ez betidanik existitu. Poliziak kapitalismoarekin batera du genesisia eta ez zen delituen prebentziorako sortu, ordena jakin baten mantenurako baizik. Ez da zuzena polizia sistemaren “protesitatzat”, hots, tresna gehigarritzat jotzea. Ostera, sistemaren beraren zati konstitutibo bat da.

Hori horrela, hauxe da poliziaren funtzio nagusia: estatuak ematen dion indarkeriarako eskumena erabiltzea *statu quo*-a mantentzeko². Ondikoz, poliziaren existentziak berak egiten du polizia biolento. Historiak erakutsi digu gobernuek egokitzen duten orden soziala mantentzeko behar dituen baliabideak erabili eta edonora iristeko prest dagoela polizia; baita Ertzaintza eta Udaltzaingoa ere, zenbait sektore politikok kategoria horretatik bereizi nahi izan dituzten arren.

[1] David Bayley, *Police for the Future* (1994).

[2] Jakin badakigu, bestelako gorputz, instituzio eta agente batzuek ere indarkeria erabiltzen dutela, Estatuaren babesarekin edota honen onesperekin.

Poliziaren modernizazioa: eredu prediktiboak eta teknologia berriak

Egun, funtzio historiko hori betetzeko baliabide gaurkotuak ditu poliziak. Joan den urteko txostenean azpimarratu genituen horietako batzuk, besteak beste, buroerrepresioa, kontrol soziala, poliziak duen babes administratiboa edo Espaniako Mozal Legearen edo Donostiako Udaleko Mozal Ordenantzaren gisakoak.

Horrez gain, berriki aditu dugu, adibidez, "Ertzaintza modernizazio prozesu batean" dagoela. Batetik, polizia prediktibo baterako biraketa dakar horrek. Besteak beste, segurtasun-kamarak, algoritmo bidezko aurreikuspenak, datuen bilketa eta zelata masiboa agertzen dira eredu honen zentroan. Polizia prediktibo honek delitua zuzenean konfrontatu baino, aurreikuspen bidez saihestea omen du helburu. Alabaina, honek ez du esan nahi eredu inofentsiboa denik. Poliziaren predikzioak aurreiritzi eta sesgo zehatzetan oinarritzen dira. Txosten honetan jasotako gazte asko ez zituzten delitu bat prebenitzeko identifikatu kale erdian. Ostera, bizilagun eta kide arrazializatuak di-relako eta eta poliziaren logika prediktiboak instituzioak berezko duen oinarri arrazista iraunarazten duelako atzeman zituzten. Halaber, datuen bilketa eta zelata ez da arinagoa norbera konturatzen ez delako. Are, norbanakoen onespen eta kontroletik at egiteak are problematikoago egiten du.

Bestetik, teknologia berrien erabilerak osatzen du poliziaren modernizazioaren bigarren zutabea. Arma "ez-letal" deritzenen propaganda zentrala da honetan. 2024ean iragarri zuten ondorengo lau urteetan 2.800 taser-pistola, 24.000 txaleko eta 30.332 borra luzagarri erosiko zituztela Espanian. Euskal Herrian ere, Bizkaia eta Nafarroako hainbat udalerritan taser pistolaz hornituta dabilta udaltzain eta foru-zainak. Donostian ere taser pistolak izango dituzte laister udaltzainek, hala islatzen du udalak 2025eko aurrekontuetan sartutako diru-partidak.

Taser pistolek eta arma-ez letalek, oro har, poliziaren aurpegi onberago bat erakutsi nahi dute. Alabaina, "ez-letal" terminoa ez da eufemismo bat besterik: biolentziari makillaje amablea jartzen dio. Letal/ez-letal bereizketa egitea ez da zuzena. Batetik, arma ez-letalekin ere jendea erail eta zauritu dutelako (ikus. 4.VI. "polizia eta armak" atala). Bestetik, arma letalekin kontrajarri eta itxuraz, horren arriskutsuak ez direla pentsatzeak, praktikan poliziak gehiago eta modu oldarkorragoan erabiltzea dakar.

2023an seinalatu genuen, tresna horietariko asko Israelgo gobernuarekin salerosketan eskuratu ohi direla. Adibide bat ematearren, Eusko Jaularitzak komunikazioak interbenitzeko darabilkien softwarea Verint Systemek fabrikatzen du. Hain zuzen, espiotza eta ustelkeria kasuengatik hainbatetan seinalatua izan den firma israeldarrak. Beraz, iaz esana berresten dugu: "diru publikoa Palestinar herriaren aurkako genozidioa egiten ari den Israelen esku geratzen da. Odolez zikindutako transakzio ekonomikoak dira; betiere «euskaldunon segurtasuna» aitzakia moduan erabiliz".

Finean, gizartean iltzatu nahi izaten den irudi onberatik urrun, poliziak segitzen du estatuaren indarkeriaren beste adar bat gehiago izaten. Akaso, indarkeria horren aurpegi ugari edo ezkutuan geratzen dira, agerikoak izanagatik ezikusiarena egiten zaie edo azalberrituta datoz. Izango du zerikusirik, akaso, eraso zuzenenak euskal gizarteak "bestetzat" dituen horiek pairatu ohi dituztela sarri. Hori horrela, bizi dugun testuinguruan funtsezkoa da pertsona migratuek, mugek zeharkaturiko gorputzek, protagonismoa izan eta erabakiak aktiboki hartuko dituzten agentzia-espazio kolektiboak eraikitzea. Hemen jasotako biolentzien salaketen aurrean esku-hartze aktiboa izan eta beren errelatoa modu autonomoan eraiki dezaten.

4. JASOTAKO BIZIPENAK

2024 urtean zehar bildu ditugun bizipenak ezaugarrituko ditugu segidan, gertaeren kokapena egin eta poliziak erabilitako indarkeria mota erasotuen zein poliziaren ezaugarriekin gurutzatuz.

Espazioa eta denbora


Lehenik eta behin, jasotako 156 gertaerak denbora eta espazioan kokatu ditugu. Alde batetik, bizipenak auzoka multzokatuz gero, agerikoa da oso era desorekatuan banatzen direla espazioan. Egia auzotik jaso dugu gertaera gehien (39) eta alde handia dago jarraian datozen Alde Zaharra, Intxaurren eta Erdigunearekin (18, 18 eta 17 gertaera, hurrenez hurren). Kokapen zehatzari erreparatuz gero, nabaria da badirela dentsitate handiagoko eremuak (ikus mapa*).




* Mapa jaso ditugu kokapen zehatz guztiak markatu ditugu, maiztasuna kontutan hartu gabe. Hau da, toki berberan gertaera bat edo zortzi jaso,, X bakarrarekin markatu dugu bi kasuetan.

AUZOA	BIZIPEN KOP
EGIA	39
ALDE ZAHARRA	18
INTXAURRONDO	18
ERDIGUNEA	17
AMARA BERRI	7
MARTUTENE	5
HERRERA	4
AMARA ZAHARRA	3
LOIOLA	3
GROS	2
ANTIGUA	1
DONOSTITIK KANPO	3
EZEZAGUNA	36

Bizipenen espazio motari dagokionez, bi heren inguru kalean jazo dira (101). Aurretik aipatu bezala, ikusgarriagoa da espazio publikoetako indarkeria poliziala eta, beraz, errazagoa gertaerak gugana iristea. Esanguratsua da, halaber, kaltetuaren bizilekuan jasotako gertaera kopurua (27). Izan ere, bizilekua toki seguru gisa eraiki ohi dugu, norbera babestua sentitzeko moduko espazio gisa. Poliziaren indarkeriak, ordea, arazorik gabe zeharkatzen du babesgune horren muga, bereziki –aurrerago ikusiko dugun moduan– bizilekua gaur egun hegemonikoa den merkatu zirkuituetatik haratago eratua bada. Hala, muga hori zeharkatuta, erasotutako izandako pertsonen babesgabetasun maila biderkatu egin ohi da. Era honetan, norbere bizilekuak ere toki segurua izateari uzten dio.




Bestalde, merezi du denboraren dimentsioari arreta jartzeak. Esanguratsua da oporraldi/turismo garaien aurretik jaso dugun indarkeriaren intentsifikazioa. Hala, maiatza, ekaina eta azaroan gertaera kopurua nabarmen da handiagoa. Eguneko momentuari dagokionez, jasotako informazioaren arabera goiza da une lasaiena eta egunak aurrera egin ahala gora egiten dute indarkeria polizialari lotutako gertaerek. Gauean jaso dugun indarkeria ia hirukoiztu egiten da goizekoarekin alderatuz gero.



Bi dimentsio horiek (espazioa eta denbora) uztartuz gero, badirudi Donostian poliziaren eskuhartzeak "kaleen garbiketa" logika bat jarraitzen duela. Deserosoa izan daitekeen eta postal hiria "hondatzen" duen oro desagerraztea, alegia.

Indarkeria motak eta zapalkuntzen ardatzak


Poliziaren indarkeriak forma ezberdinak har ditzake., "indarkeria mota" deritzon grafikoan ikus daitekeenez. Identifikazioak jaso ditugu gehienetan (98), ohikoa baita bestelako indarkeria erabiltzen dutenean ere, poliziak uneren batean pertsona identifikatzea. Gainera, miaketak (67), kolpeak gorputzean (55), irainak eta umiliazioak (39), buroerrepresioa (39), inkautazioa edo norbere ondasunak kentzea (35), mehatxuak (33), atxiloketak (27), teknologia berrien erabilera (12) eta zelatatzeak (9) ere jaso ditugu³.




[3] Identifikazioekin gertatzen den gisara, ohikoa da poliziak indarkeria mota bat baino gehiago erabiltzea gertaera bakar batean.

Zenbait aldagairen arabera poliziaren jarduna eta indarkeria moldatu egiten da. Horregatik, ezinbestekoa zaigu aipatutako indarkeria motak erasotuaaren edota poliziaren bestelako ezaugarriekin gurutzatzea. Gurutzaketa horretatik atera dugu "zapalkuntzen ardatza" deritzon grafikoa.

Indarkeria poliziala zapalkuntza-ardatz bati edo batzuei lotuta egon daiteke eta horren arabera forma desberdinak hartzen ditu. Aurten jaso ditugun bizipenen arabera, bereziki hauexek aipatu nahi ditugu: arrazakeria (117), bizilekua⁴ (28), militantzia (23), erreaktiboa⁵ (8) eta osasun mentala⁶ (2).



Zapalkuntza-ardatzak eta indarkeria motak gurutzatuta ere, kontu esanguratsuak azaleratzen dira. Adibidez, aipatzekoa da arrazakeria eta bizilekua 25 bizipenetan agertzen direla gurutzatuak. Gainera, arrazakeria eta bizilekuan oinarritutako indarkeria polizialak forma ugari hartzen ditu. Bereziki, inkautazioak, irainak eta umiliazioak gailentzen dira. Buroerrepresioak, aldiz, militantziari lotutako indarkeria polizial kasuetan presentzia handia du; baita miaketek eta, neurri txikiagoan bada ere, gorputzean egindako kolpeak. Indarkeria erreaktiboa dagokionez, identifikazioak, kolpeak gorputzean, mehatxuak eta buroerrepresioa nagusitzen dira. Azkenik, osasun mentalaren aurrean indarkeria fisiko oso esplizitua jaso dugu eta kolpeak daude bizipenen erdigunean.



[4] Norbere bizilekuari lotutako polizia indarkeria: esate baterako, kale-egoeran dauden pertsonen, okupatutako etxebizitzetan bizi direnen, edota "infraetxe" deritzen egituretan babesgunea bilatzen duten pertsonen aurkakoa.

[5] Polizia indarkeriaren aurrean erreakzionatzearen ondorioz jasotako indarkeria poliziala. Adibidez, jipoi polizial baten aurrean gelditu eta grabatzen hasteagatik jasotako jazarpena.

[6] Osasun mentalari lotutako desoreka baten aurrean poliziak esku hartzean erabilitako indarkera.

Datu soziodemografikoak

Erasotuei dagokionez, esanguratsua da jaso dugun bizipenen gehiengo zabala (adina zehaztuta dagoen 111 gertaeratik 84) 18-25 urte bitarteko gazteek jasandako indarkeria polizialari dagokiola. Aipagarria da, halaber, adin txikiko pertsonen jasandako bi bizipen jaso ditugula. 18 urtez azpiko bi nerabek, behintzat, indarkeria poliziala bizi izan dute 2024ean Donostian. Datuek bat egiten dute auzoan izandako zenbait gertakariren harira Alde Zaharreko Gazte Asanbladak egindako analisiarekin: «Gazteria otzan eta isilik nahi dute, indar errepresiboek inpunitate osoz jarduten duten bitartean». Gazteen aurkako indarkeria poliziala nabari horretaz ari dira "gazteriaren kriminalizazioaz" hitz egitean, eta horri aurre egiteko beharra azpimarratzen dute.

Generoari dagokionez, 126 kasutan gizon zis-ak izan dira polizia indarkeriagatik kaltetuak, 17tan emakume zis-ak, bitan ez-bitarrak eta batean bollera. Edonola ere, datu horien interpretazioarekin kontuz ibili behar da. Hasierako oharrean aipatu dugun moduan, gizon zis-ak diren gorputzen ikusgarritasuna gailentzen da eremu publikoan, oro har, eta honek zeharo baldintzatzen ditu datuok. Horrez gain, normatibitate haratago doazen jokabideen aurrean tresna desberdinak aktibatzen ditu sistemak, horiek "zuzentzeko". Poliziak materializatzen duen indarkeria –indarkeria fisikoaren kasuan, batik bat— gizon moduan irakurtzen diren gorputzen gainean aplikatzeak ez du iritzi publikoa gehiegi asaldatzen. Hain zuzen, honek gure testuinguruan gailentzen den moralitatearekin bat egiten duelako. Betiere, noski, horixe arrazializatua, pobrea eta gizona denean. Alegia, subjektuaren arabera, modu batera edo bestera, gehiago edo gutxiago, inbisibilizatu eta legitimatu ohi dira biolentziak.

Hori horrela, eta kontutan hartuta: hasteko, poliziaren esku-hartze asko kalean egiten direla; bigarrenik, gertaera bat ikusgarriagoa den heinean errazagoa dela gurea bezalako erregistro batera iristea; eta, azkenik, poliziaren zein jendartearen moralitate patriarlaka medio, normalizatuta dagoela gizon moduan irakurritako gorputzen aurkako indarkeria erabiltzea, zentzuzkoa da txosten honetan jasotzen den polizia indarkeria bereziki gizon zis-en gorputzen gainekoa izatea.

Azkenik, erasotuak izandako pertsonen jatorriari erreparatuz gero, 113 kasutan Afrika iparraldekoak dira, 29 kasutan Euskal Herrikoak eta 4 kasutan bestelako jatorri batekoak dira. 10 kasutan ez dugu pertsonen jatorria jasotzerik izan.

Jaso ditugun bizipenetan, agerikoa da jatorria jasotako indarkeria polizialean eragina duen aldagai bat dela. Hala, guk jasotakoak poliziak Afrikar Iparraldeko jatorria duten pertsonak gehiago jazartzen dituela mahaigaineratzeaz gain; irainak eta umiliazioak, inkautazioa, teknologia berrien erabilera eta zelatatzea haien aurka erabiltzea ohikoagoa dela adierazten du⁷. Buroerrepresioa, aldiz, jatorri euskalduna duten pertsonen aurrean nabarmentzen den indarkeria mota da, baita Afrika Iparraldeko jatorria duten pertsonen kopuruekin proportzionalki alderatuz gero (%52 eta %23 hurrenez hurren).

Polizia mota

Arreta indarkeria erabiltzen duen polizia gorputzetan jarritz gero, 100 kasutan Ertzaintza egon da tarteko, 68 kasutan Udaltzaingoa, 2tan Espainiako Polizia Nazionala eta 4 kasutan zerbitzu publiko bat betetzen ari ziren segurtasun pribatuko agenteak. Agerian geratzen da, beraz, "euskal poliziatzat" jo ohi direnek ere indarkeria erabiltzen dutela: bai Ertzaintzak eta baita Udaltzaingok ere.

[7] Kontuan izan behar da emaitza hauek Txagok jasotako datuak soilik kontutan hartuta atera ditugula. Militantziari dagokion atalean antolakunde politiko ezberdinek jasotako datuak ere txertatuko ditugu eta horrek zenbait datu moldatu ditzake.

Hemen komeni da kontu bat argitzea. Gorputz polizial bakoitzeko kasuak gehituz gero, osotara, 156 gertaera baino gehiago jaso direla irudi lezake. Kontuan izan behar da, ordea, esku-hartze bakarrean hainbatetan gorputz polizial ezberdin elkarlanean aritzen direla (32, kasu honetan). Hau indarkeria polizialaren erregistrorako txosten bat den heinean, gertaera berdinean polizia gorputz ezberdinak agertzen badira, horrek esan zera esan nahi du: erregistratu diren guztiek izan dutela jasotako indarkeriarekin harremana.

Hala, bereziki ohikoa da Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko elkarlana (28 kasutan jaso dugu). Hainbat sektoretatik Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko bereizketa saiakeran tematzen badira ere, datu hauek berresten dute Donostiako Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko harremana estua izateaz gain, eredu antzekoetan oinarritzen dela. Euskal Poliziaren proiektua indartzeko ideiaren eta batzuen iritziz "hurbilekoagoa" eta "herritarragoa" den Udaltzaingoaren irudia deseraiki egiten da. Horrez gain, bada ere elkarlanik ere segurtasun pribatuarekin eta Espainiako Polizia Nazionalearekin. Elkarlana soilik ez, bestelako loturak ere antzeman ditugu. Bereziki kezagarria den dinamika bat honakoa da: Ertzaintzak pertsona atzerritar bat gelditu eta aitzakiren baten pean Espainiako Polizia Nazionalean hitzordu faltsu bat ematea (ikus. 4.I. "Polizia eta arrazakeria" atala).

4.1 POLIZIA ETA ARRAZAKERIA

Biolentzia arrazistez hitz egiteko komeni da, labur bada ere, termino batzuk argitzea. "Migrante"-k errealitate soziologiko bati egiten dio erreferentzia, pertsona bat bere jaioterritik lekualdatu dela ematen du aditzera. "Atzerritartasun" termiona, ordea, baldintza juridiko bati dagokio, nazionalitatea nork duen eta nork ez den zehazten du. Bi termino horien nahasketak dakar, neurri batean, "migrazio informal" edo "irregular" bat existitzen denaren eta horrek arazoak dakartzan ideia. Halaber, marko terminologiko horren baitan determinatu ohi da nortzuk diren migranteak, nor atzerritarrak eta, hala, nork merezi duen errekonozimendua hirian eta nork ez. Zeren bai, Euskal Herria –kultura ororen kasuan bezalaxe– bertako herritarren migrazioek osatu dute. Alabaina, nazionalitateari ematen zaion pisuak dakar arrazializazioa zaindu beharreko eta kosta ala kosta arrastoan mantendu beharreko elementutzat jotzea.

Instituzio polizialek paper zentrala dute testuinguru honetan. Besteak beste, jazarpen eta kontrol poliziala, biolentzia poliziala, kaleko presentzia, buroerrepresioa, zerbitzu publiko eta berme juridikoetatik baztertuta egotea nabarmentzen dira modu esanguratsuan. Donostiari erreparatuta, azken urteetan hirian sarekaden, perfilamendu razialen eta jazarpen selektiboaren gorakada bat ikusi da. Halaber, Telegrameko talde faxisten, Donostiako Udalaren, Ertzaintzaren eta bestelako gorputz parapolizialen (Delta edo Prosegur, kasu) arteko elkarlanaren testigu ere izan gara.

Honekin ez dugu esan nahi praktika horiek espreski ordenamendu juridiko eta praktika polizialari zor zaizkionik. Ostera, bazterketa sozial eta arrazismoan oinarritutako diskurtso eta testuinguru lokal zein internazionalen baitan uler daitezke. Poliziaren arrazakeria muga eta indarkeria aldakorretan oinarrituriko gizarte baten isla da baita.

Atal honetan, poliziak eragindako praktika arrazisten inguruan arituko gara, jasotako testigantza eta bizipenetan oinarriturik. Lanketa honekin, espero dugu bizilagun arrazializatuen eguneroko eta esperientzia migratorioen parte diren gertaera anitz eta heterogeneoak modu sistematikoan gertatzen direla ikusi ahal izatea. Baita etorkizunean indarkeriari aurre egiteko tresna kolektibo eta intersektionalak sortzeko baliagarri izatea ere.

JASOTAKO BIZIPENAK

Txosten honetan bildutako bizipenetatik 117 atal honi dagozkio. Horietatik 60 kasutan hartu du esku Udaltzaingoak, 68 kasutan Ertzaintzak, 4 kasutan segurtasun pribatuak eta behin Espainiako Polizia Nazionalak.

Argitu behar dugu praktika eta jakintza-marko europear eta mendebaldar, herentzia kolonial eta abiapuntu eurozentriko batetik abiatzen garela. Hemendik egin dugu ikerketa. Gure begiradari, aktibista, militante, ikertzaile eta pertsona zuriak garen neurrian, hori dena dario. Horretaz kontziente izanik ere, seinlatu behar dugu, pertsona migranteen ahotsak baztertzeaz gain, horien irudi konkretu bat hauspotzen duen aparatu instituzional, mediatiko, akademiko eta ekonomiko oso bat existitzen dela. Donostia ez da salbuespen. Martutene, Trintxerpe, Egia, Kaleko Afari Solidarioak egiten diren plazak, edota tren eta autobus geltokietan etorkinen aurkako mezu eta eskuinmuturreko esloganak ikusi ditugu. "Paperik gabeko pertsonen" aurkako zelatatzea eta erasoak egon dira urtean zehar, baita talde antolatuen partetik ere. Gai honen inguruan dezente hitz egin da eta diskurtso horiek airean zabaldu dira inguruan. Hori dena ez da ausazkoa: poliziak espazio publikoan egiten dituen praktikekin loturik dago. Praktika horietariko asko egunero ikusten baditugu ere, hain daude txertatuta eta naturalizatuta, ezen jendea ez dela oro har asaldatzeko.

Identifikazioak, miaketak eta inkautazioak

Hiriko hainbat espaziotan egunero paisaiaren parte dira poliziaren identifikazio sistematikoak. Pertsona arrazializatuek eta konkretuki etorkinek bultzatzen omen duten ustezko “segurtasun-arazo” baten aurkako prebentzio mekanismo gisa justifikatu ohi dira maiz. Bai instituzioetatik eta baita hortik kanpo ere. Hau da, delituen susmagarriak atzeman eta espazio publikoaren segurtasuna bermatzeko egiten direla. Alabaina, identifikazio horien patroiarri so eginez gero, agerian geratzen da neurri honek gehiago duela seinalamendutik prebentziotik baino.

Sarri, polizia beraren sesgo arrazistak daude identifikazioak justifikatzeko baliatzen dituzten “susmo” horien muinean. Besteak beste, azal kolorea, hizkuntza, izena, itxura eta egoera legal eta habitazionala bezalako elementuen bidez perfilatzen da, bai marko juridiko-politikotik eta bai Ertzaintzaren agenteen jardueraren bidez, “susmagarriaren” zein den. Aldi berean, Diario Vasco gisako hedabideek herritarrengan irudi hori erreproduzitu besterik ez dute egiten, pintxo-poteetarako elkarriketarako zein LQNTCDD gisako Telegram taldeetarako bazka arrazista ideala eskainiz. Hori dena gutxi balitz, identifikazio masiboek inpaktu zuzena du hori jasaten dutenen irudiaren kriminalizazioan.

Jaso ditugun identifikazioetatik 75 dagozkie Afrika Iparraldeko jatorria duten gazteei. Identifikazioak dauden aldiro ia sistematikoki egiten dira ere miaketak eta inkautazioak –arrazakeriari lotutako 54 eta 33 bizipenetan jaso ditugu halakoei lotutako testigantzak, hurrenez hurren-. Ohikoa da ere identifikazio baten atzean lapurretaren baten susmagarri izatearen akusazioa egotea. Esaterako, Donostiako tren-geltokian bi gazte geratu zituzten, eta horietako bati soinean zeraman maleta zabalduarazi. Lau agente eta auto bat etorri ziren horretarako, sekulako zalaparta sortuz. Zein zen halako iskanbila sortzeko motiboa? Gazteetako batek maleta bat zeramala, eta bestea “apur bat urduri” zebilela.

«te paramos porque ibas corriendo rápido con una maleta», «y a ti porque estabas un poco nervioso». – Poliziak, Tabakaleran geratutako bi gazteei.

Kasu honetan bezalaxe, akusatuak lapurreta-susmagarriaren baten “profila” betetzen duela aipatu ohi da. Profil hori aurreiritzi arrazistetan oinarrituta dago, poliziak berak osatutako irudia da. Hala, deskribapenean sartzen den edonor bilakatzen da susmagarri eta, era berean, poliziaren jazarpenak aurreiritzi hori berresten du. Sorgin-gurpil bat sortzen da.

«poliziak zioen “nos han avisado los de Renfe que buscan a una persona, coincidía con la descripción. Estamos mirando pero no estamos seguros. Estamos esperando a que la policía nacional nos diga por la radio a ver si tiene algo. Y si no tiene nada, se quedará libre”. Total, handik bost minututara se quedó libre, no era el que pensaban. Porque como siempre todos son iguales, todos se parecen.... eta hori libre utzi zuten».
– Testigu batek, Tabakaleran ikusitakoaz.

Maiz errepikatzen den patroia da hori: gazteak geratu, identifikatu eta miatu, konprobazioak egin, eta aske utzi. Kasu askotan pertsona libre uzten dutenez, irudiko luke identifikazioak ez duela ondorio edo efektu nabarmenik, baina hori ez da hala. Hasteko, tramite hau ez da modu diskretuan egiten, mundu guztiak ikusteko moduan baizik. Gainera, identifikazioa egitera hurbiltzen diren polizia kopurua neurrigabekoa izan ohi da. Jaso ditugu kasuak non pertsona bakarra identifikatzeko 9 polizia gerturatu diren.

Kale mailan eta publikoaren inguruetan zuzena du seinalamendu honek. Identifikazio gehienak (52tik 50) espazio publikoan gertatu dira, bizi-lagunen begi-bistan. Gazte horietan kriminalizazioa are gehiago hauspotzen du honek, poliziak etengabe kalean geldiarazteak berretsi egiten baitu horietan arriskutsuak diren aurreiritzia. Are, jasotako zenbait gertaeretan, bizilagunak beraiek izan dira gazteak lapurretan aritzeaz akusatatu eta polizia deitu dutenak. Gertakari honen deskribapena esanguratsua da zentzu horretan:

«Aurkitu naiz gazte batekin eta kontatu dit Groseko marrokiarrean zegoela. Berak zeraman berea zen Nikeko motxila beltz bat. Sartu da emakume bat eta *de primeras ya le ha dicho que le de la mochila, y que la abra*. Tipoa flipatzen, *que no entendía, ¿cómo que te de la mochila y la abra? ¡Sí, sí, que abras la mochila!* Osea, *ya le estaba acusando de primeras que esa mochila era de la mujer (...) que se la habría robado. El chico ha empezado a mostrarle la mochila, para demostrar que era suya*, zituen hor bere gauza guztiak. Emakume hau *al rato se va, y de repente ha aparecido toda la patrullada de la Ertzaina*. Eta oso modu desatseginean, hurbildu dira bereganara, paretaren kontra bortitz bota dute, eta betiko moduan. (...) *Y cuando ha podido demostrar que esa mochila era suya y que no había robado nada, le han pedido disculpas la Ertzaina*. Berak esan dit *“joe, me podían haber llevado aunque sea a un txoko, hacerlo de manera más discreta...”* Baina izan omen da kriston showa. *Le han tratado de primeras fatal, total para nada*. Orain zegoen gaixoa eskaileretan jasotzen bere gauzak. Gainera, gero joan da okindegi batera kafe bat hartzera eta esan diote ezetz, alde egiteko, ez ziotela zerbitzatuko.»

Identifikazio gehienek dakarte berekin miaketa, eta horietan ere, indarkeria eta errespetu faltak ere egon dira tarteko. Jaso ditugu miaketa egiteko poliziak modu oldarkorrean bultzatu, lurrera bota eta iraindu dituzten kasuak. Arropa kenduarazi eta galtzontzilotan utzi dituzte katxeatutako hainbat gazte. Miaketen ondoren lurrean botata utzi ohi dituzte atzemandako pertsonaren objektu pertsonalak. Are, poliziak ere hautsi dizkie objektu pertsonalak gazteei.


«(...) *me han cogido todo. Han roto la tienda de campaña, me han pinchado la bici y han cogido la bombona azul. Así que no tengo nada ahora.* »

Azkenik, miaketa eta identifikazioaren ondotik, ohikoa da poliziak objektuak inkautatzea. Hau da, norbere gauzak kentzea. Oro har, lapurtutako objektutzat jotako pertsonentzia pertsonalak izaten dira, hala nola, motxilak, bidaia-txartelak edo mugikorrak. Baita dokumentazioa ere, adibidez, pasaporteak.

Buroerrepresioa

Prozedimentu horietan buroerrepresioa ere seinalatu behar dugu. Buroerrepresioa deritzogu bide administratibotik aplikatutako indarkeria mota zehatzari, besteak beste, isunak, tramite eta traba burokratikoak, prozedimentu administratibon irregulartasunak, edota sanzioak neurritz gain eta justifikaziorik gabe aplikatzeari. Jaso ditugun buroerrepresio kasuetatik, 22 daude arrazakeriari lotuta. Gehienak prozesuetan egin diren irregulatasunei dagozkie eta 2 isunei.

Inkautazioei dagokionez, hasteko, kasu gehienetan gazteei ez diete inkautatutako horren akatarik ematen. Detektatu ditugu ere hainbat gertaera non objektuak errekuiperatzeko zuzenean komisaldegian edo epaitegietan zitatzen dituzten gazteak. Zitazio horiek ahoz egin izan dira batzuetan, besterik gabe “etorri bihar hona” esanez. Beste kasu batzuetan, Polizia Nazionalaren zitazioak ematen dituzte (ikus irudiak hurrengo orrialdean), baina ziurtagiri horiek faltsuak edo berez balioagabeak zirela ziurtatu ahal izan dugu, Espainiako Polizia Nazionalera deituta. Gainera, zentzugabekeria dirudien arren, badirudi hitzordu horiek atzerritarren estatus legala aztertu edo kanporatze agindua emateko erabili dituztela.



*Polizia Nazionaleko zitazioen bi motatako dokumentu faltuak.

«Askotan tranpa bat da.. azkeneko kasuan firmatzera joan zen neska bat eta momentuan gauzatu zuten expulsioa.. edo kentzen diete pasaportea».

Atxilotze prozesuan ere ikusi dugu Euskal Polizia eta Polizia Nazionalaren arteko elkarlana. Hainbat kasutan, identifikazio, miaketa eta atxiloketa Polizia Nazionalaren ziegetan bukatzen da, kanporatze aginduarekin.

Indarkeria psikofisikoa

Joan den urtean esandakoa berretsiz, "indarkeria psikofisiko" trerminoak darabilkigu, ez dugulako uste indarkeria fisikoa eta psikologikoa bereizteak zentzurik duenik. Indarkeria fisikoak badu eragin psikologikorik, eta alderantziz. Bereizketa horrek zerikusi gehiago du poliziak erabiltzen dituen teknika desberdinekin gure gain izan ditzakeen eraginekin baino.

Eraso itxuraz psikologikoagoari dagokionez, irainak, mehatxuak eta umilazioak gailendu dira. Aipatu dugu identifikazio eta miaketak berez egiten direla modu umilantean: diskreziorik gabe, gazteak biluztaraziz edota modu bortitzean bultzatuz. Halaber, hitzezko erasoak, irainak eta mehatxuak ere jaso ditugu.

«Moro basura» – Gazte bati, identifikazio unean.

«"voy a cogerte, voy a llevarte al monte y voy a matarte". La policía, en la noche cuando salimos. (...) Sí. Me ha dicho, (...), "voy a coger a los tres y los voy a llevar al monte", va a matar a los tres.» – Gazte batzuk kontatzen udaltzainek kale erdian geratu zituztenekoa.

Mehatxuei dagokionez, badirudi poliziak begitan jota dituela hainbat pertsona⁸. Alegia, jazarpena ez dela puntuala izaten bakarrik, kontrolatuta dituzte. Adibidez, gazte hauen kasuan identifikazio errutinarioa egiterakoan, agenteek aprobetxatu zuten gazteei "beren tokia zein den" argi uzteko. Soinena zeramana inkautatu eta multa jarri zioten egun hartan.

«ya sabemos quien eres»

«en el juicio no se ha hecho justicia para nuestros compañeros, ahora la empezaremos a hacer nosotros mismos»

Eraso fisiko zuzenei dagokionez, 40 bizipen jaso ditugu arrazakeriari lotuta. Indarkeria fisikoa eragiteko poliziak ez du zertan ezkutatu, baditugu espazio publikoan eta lekukoek begitatutako kasuak (18). Alabaina, badirudi maila altuko intentsitatedun indarkeriak bai egiten direla toki ezkutuetan, hala nola, basoan, ziegetan, poliziaren kotxean, mugan eta espazio pribatuetan.

Kotxe-bidaietan

Behin atxilotuta, komisaldegira bidean, kotxean bertan has daiteke biolentzia. Adibidez, jaso ditugu auto eta furgonetaz lekualdatutako batzuen testigantzak. Horietako batzuk Intxaurrendotik 10 minutu eskasetara atxilotu zituzten. Bada, izugarri luzatu zuten ibilbidea, hain zuzen, gazteak urduritu eta izutuz. Bortizki gidatu zuten eta bidai osoan zehar egon ziren irain eta kolpeak.

Komisaldegian

Komisaldegian bertan ere gertatu dira pasarte lazgarriak. Aipatu gazte horiei argi utzi zieten komisaldegira heldu orduko, "que ni derecho ni pollas", eta hala berretsi. Lehen momentutik hasi ziren irainak eta kolpeak, bai kalabozoetan eta baita horietatik kanpo. Sekulako jipoiak eman zizkieten.

8. Pertsona (P8): ... *esta puta mierda...*

P9: *todavía nos duele el cuerpo a todos.*

Itzultzailea (I): *el cuerpo...*

P8: (...) *no puedo levantarme por la mañana.*

Kolpatu zituzten borrekin, ukabilekin, ostikoka, aulkiekin, kalabozoko ateekin... betiere, poliziek eskularruak soinean zituztelarik. Askotan aipatzen da polizia kopuru neurrigabea zela: 10, 11, 12, 13...

P8: *lo que me ha dicho (...) él coge la, ¿cómo se llama? Coge la puerta, de la... del calabozo y pegar la cabeza de él (...) yo, me ha dicho. él. Pegarme con la porra. (...)*

P8: *sí. Los dos pegarme. Yo estaba ahí, el otro pegar así, y el otro así, y el otro así. Y después llegamos a comisaria. Eh, entrar trece... cuatro... eh, dos, eh, doce...?*

Elkarrizketatzailea (E): *¿cuántas personas te pegan?*

P7: *muchos, muchos...*

[8] Honek poliziak bizitzaren gain duen kontrola erakusten du. Gehiago hitz egingo dugu horretarako baliatzen diren teknikez aurrerago (ikus. 4.III. "polizia eta militantzia" atala).

Binaka isolatu zituzten, arropa kenduarazi ere egin zieten, lurrean lotu eta kolpatu. Aipatu dute ere motoko kasko bat jarri zietela batzuei, kristala tintatua zuena, ezer ez ikusteko. Denera hiru egunez

Biluzteak, isolamenduak, umilazioak, jipoiak... Euskal Herrian, zoritxarrez, presente egon den errealitatea da hau. Urte luzez jo izan da begitan Intxaurrondoko kuartela eta, badirudi, egun ere segitu beharko genukeela.

Osasun-zentroetan

Kasu askotan polizia bera izan da gazteak jipoitu eta erasotu ondoren horiexek osasun-zentroetara eramane dituenak. Normalean, lesioak eragin eta ordu batzuetara eramane dituzte, adibidez, kalabozoan gaua pasa eta biharamunean. Jaso ditugun txosten medikoetan ez da lesioaren berezko jatorria –poliziaren indarkeria– aipatzen. Atxilotuak borrokaren batean ibili direla, erori egin direla... eta gisako aitzakiak erabiltzen dituzte. Hainbat gaztek seinalatu dute poliziak beraiek hizkuntza menperatu ez izanaz aprobatxatu direla.

E: *“traumatismo en cadera y detenido. Refiere policontusión tras agresión en cadera izquierda tras golpe directo y caída en dicha zona”. Tú a la médico le explicas todo...*

P6: *sí, todo.*

E: *...y no pone nada ella»*

P6: *(...)*

E: *¿delante de la policía?*

P6: *sí, delante de la policía.*

E: *¿y la policía, cuando le explicáis eso al médico, qué hace? ¿se ríe?*

P6: *no hacer caso, no hacer caso.*

P7: *Sí, no hace caso, como si no pasara nada, como si hablara de... de otra cosa, de una cosa normal.*

– Elkarrizketa bat, osakidetzan jasotako tratua inguruan.

4.II POLIZIA ETA BIZILEKUA

Etxebizitza pertsonon behar oinarrizkoak asetzeko, espazio intimoa eta seguruak eraikitze eta, orobat, gure bizitza soziala aurrera eraman ahal izateko tokia da. Egun, Donostian 400 pertsona inguru bizi dira etxebizitzarik gabe. Beste etxe askok azpiegitura eta egoera prekarioa dute aipatutako beharrak asetzeko. Poliziaren praktiketan ere etxebizitza edo lo-leku mota anitzen aurkako gertaerak jaso ditugu. Atal honetan, poliziak etxebizitza batzuen aurka edo hauen testuinguruaz baliatuz egin dituen praktiketaz arituko gara. Osotara, etxebizitza edo bizi-tokiarekin lotuta dauden 28 bizipen jaso ditugu.

Etxe okupatuak

Hainbat etxe okupatuetan, inolako ordenik gabe, barruraino sartu eta identifikazio, miaketa edo atxiloketa lanetan aritu da polizia.

«lo que ha pasado (...) Han entrado y (nos) han cacheado. No podían entrar ahí, no tenían orden judicial para entrar.»

Espazio okupatuetan, etxeak desegin eta objektu pertsonal zein kolektiboak apurtu eta eraman egiten dituzte. Orokorrean, espazioa goitik behera desegin dute (oheak, mantak, sukaldeak, armairuak...). Objektu horiek batzuetan ausaz aukeratzen dituzte. Alabaina, espazio "intimo" eta "segurua" desegiteaz gain, gorroto ekintzak ere burutu izan ditu Ertzaintzak musulmanen aurka:

«Luego cogieron (...) y cuando vieron que no había nada robado ahí ni nada, subimos y vimos que estaba el Corán roto.»

Donostian, kale egoeraren alternatiba diren eraikin okupatu handietan indarkeria psikofisiko, umiliazio eta mehatxuak egunerokotasunaren parte izan dira. Ezin aipatu gabe utzi, espazio horietan bizi den jendearen gehiengoa etorkinak direla eta arrazakeriarekin gurutzatua ageri dela indarkeria mota hau. Inportantea iruditu zaigu oihartzun gehiago izan duten muntaia polizialez gain, egunero edo gauero horrelakoak gertatzen direla gogora ekartzea:

- Gauean orduro hainbat polizia furgoneta eta kotxe hurbildu eta sirenak eta bizilagunei loa oztopatze fokuak topera jartzea.
- Banan-banan logeletatik atera eta hormen aurka jartzea.
- Ateak eta espazio pribatu-publiko zedarrizteko edo norberaren espazio seguruaren muga markatzen duten objektuak haustea.

Espazio eta egoera horietan 50-60-80 pertsona izaten dira indarkeria jasotzen dutenak. Hau da, espazio horiek baliatzen ditu poliziak indarkeria bat-batean eta aldi berean pertsona mordoa baten aurka erabiltzeko. Okupazioa hiriaren marginetan ematen denean, aukera paregabea topatzen du poliziak espazio osoaren kontrola hartu eta beste toki batzuetan –espazio publiko irekietan, kasu-legitimotzat jo ohi ez diren eraso psikofisikoak egiteko.

«Y entonces, le agarran del cuello como para decirle que si no se calla, en plan, le deja sin respiración.»

«cuando le querían pegar, le dijeron: “para la cocina.”»

Kale-egoera, kanpin-dendak eta eraikin publikoak

Eraikin okupatuez gain, pertsona askok bestelako espazioetan eraikitzen dituzte atsedenerako tokiak, hala nola, kanpin dendak edota parkeetan. Kasu horietan, etxea barrutik desegiteaz gain etxea bera ere desegin du poliziak. Donostiako udaltzaingoaren ohiko praktika izan da, hain zuzen, kanpin dendak edo etxea egiteko erabili den edozein material mota puskatu, inkautatua edo zabor-ontzietara botatzea.

«Atzo poliziak kalean dagoen emakume bati txabola puskatu zion. Orain kalean dago ezer gabe»


Lo-lekuez gain oinarrizko beharrak asetzeko azpiegitura duten eraikin publikoak ere izan dira kale-egoeran bizi diren pertsonen gordeleku. Esaterako, "topoa", autobus geltokia, liburutegiak eta, oro har, erabilera publikoa duten bestelako espazio batzuk. Toki horiexek ere izan dira umiliazio eta pertsonen duintasunaren aurkako erasoen eszenatoki. Horrek denak haunditu egiten ditu eremu urbanoan sortzen diren mugak. Errepresio-forma honen adibide dugu nola zabaltzen diren sare sozialetan pertsona horien aurkako eraso, bideo, argazki zein albisteak. Horrek denak, espazio publikoaren arau normatiboen arabera modu "arraroan" bizi den ororen aurkako eraso, deshumanizaio eta espektakularizazioa suposatzen du⁹.

[9] Espazio horietan jaso ditugun testigantzak arrazakeriarekin gurutzatuak daude beti. Poliziak pertsona horien aurka egiten dituen ekintza konretuen inguruan lanketa egiteko (ikus. 4.I. Polizia eta arrazakeria atala).

4.III POLIZIA, MILITANTZIA ETA PROTESTA

Poliziak ordena kontrolatu eta mantentzeko duen lanaren parte da ere ordena jakin hori asaldatzen duen ezein pertsona eta jardura zigortzea. Disuasioaren bidez ere burutu daiteke hori eta, badirudi, militantziaren eta protestaren kriminalizazioak funtzio horixe bete lezakeela: gizarteriari erakustea zeintzuk diren statu quoari kontra egitearen ondorioak.

Txagon jaso ditugun kasuetatik 23 dagozkie jardun militanteen bizitako indarkeria polizialei. Bizipen horietan, identifikazioak (20), miaketak (13), buroerrepresioa (14), kolpeak (7), mehatxuak (5), atxiloketak (3), zelata (3) eta irainak eta umiliazioak (2) jaso ditugu, baita ekintza politikoen ondorioz prozesu judizialak zabaldu direla ere. Horrez gain, Mugimendu Sozialistak 2024ean zehar Donostian identifikazioak (15), buroerrepresioa (6), mehatxuak (4) eta zigor penalak jaso ditu militanteen artean. Azkenik, ASKE antolakundeak identifikazioak (24), buroerrepresioa (7) eta prozesu judizial bati aurre egin behar izan dio 2024ean.



Identifikazioak eta buroerrepresioa

Jaso ditugun bizipenetan, protesta eta propaganda testuinguruetan agertzen da bereziki isuna zigor moduan. Multa proposamenak izan dira. Proposamen horiek, batzuetan egikaritu egiten dira eta beste kasu batzuetan, berriz, ez dira inoiz heltzen. Honek, jazarritakoen artean ziurgabetasuna eragiten du.

Hurrengo orriko taulan ikus daitekeen bezala, guztira 15 isun jaso dira oraingoz, isun proposamenak 27 diren arren. Jasotako isunen zenbatekoak batuz gero, beraien jardun politikoagatik gutxienez 10.813€-ko zigorra izan dute Donostian militanteek. Zenbateko horri gehitu behar zaio 2024ko otsaileko ekintza baten ondorioz Mugimendu Sozialistari bide penaletik eskatzen dioten 14.000€-ko zigorra. Oraindik zabalik dago prozesu hori.

Taulan ikus daitekeen moduan, isunak gertaera jazo eta hilabeteetara iritsi ohi dira. Epe horretan ez dago jakiterik isuna iritsiko den, eta askotan iristekotan zenbatekoa izango den ere, kolektiboak denbora mugagabez ezbaian utziaz.

URTEAN ZEHAR JASOTAKO ISUNEN TAULA

2024												2025
Urt.	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.	Ek.	Uzt.	Abz.	Ir.	Urr.	Az.	Ab.	
			X									2000€
			X									2000€
			X									2000€
						600€						
						600€						
									800€			
									800€			
											1210€ ¹⁰	
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
										X		
						X						602€
										X	201€	

* (X)-z daude markatuta zigortutako ekintzen datak, eta isunaren zenbatekoak adierazten du isunaren jakinarazpena.

[10] Gertaera hau ASKE antolakundeak jasotako 6 isuni dagokio.

Isunez gain, hainbat kasutan topatu ditugu buroerrepresiotzat jotzeko moduko praktika irregularrak. Esate baterako, Aquariumean hainbat militante antiezpesistek egin zuten erresistentzia pasiboko desobedientzia ekintza baten ostean, atxilotu zituzen kideei ez zieten inongo agiri edo dokumenturik eman aske utzitakoan. Bai komisaldegian hitz egindakoa, baita abokatuaren eta poliziaren arteko hartu-emana ere, dena izan zen ahozkoa eta ez zen inongo erregistro idatzirik geratu. Militanteetako bat zehazki zer leporatzen zioten ere argi izan gabe irten zen komisaldegitik. Gisa honetako egoerek eragiten duten beldur, ezinegon eta ziurgabetasuna ere indarkeria da.

«Me acusaban de resistencia a la autoridad grave, resaltaron mogollón grave. Y luego el colectivo, pero a mí de alguna manera no me especificaron esa denuncia colectiva del grupo, de desórdenes públicos. Esa se quedó como aparte. (...) No me dieron ningún papel. Al abogado se lo dijeron todo de palabra. A mí sí que me dieron los papeles en los que me daban la citación, me devolvían mis pertenencias, confirmaban que mi dirección era la que venía en el DNI, pero no me dieron ningún papel. Eso esta mañana lo he pensado, hostia yo no sé en realidad de qué se me acusa. No tengo ninguna documentación.»

Protestak: indarkeria psikofisikoa eta atxiloketak

Arestian aipatu moduan, oro har, jardun militantearen aurka egindako indarkeria guztiak izan ditzake ondorio psikofisiko eta disuasorioak. Protesten kasuan ere gertatzen da hori, noski. Hala, ekintzetan ez parte hartzeko mezu disuasorioa bidaltzen zaie partaideei eta, oro har, gizarte osoari. Ikusi izan dugu ahalegin nabarmen bat egiten dela protestaren aurka erabilitako biolentzia poliziala protesatarien beraien errua dela ikustarazteko. Poliziaren indarkeria psikofisikoa eta atxiloketak protestarien biolentziaren erantzun direla argudiatu ohi da eta, bide beretik, protestari horiexek gizartearen armonia hautsi nahi duten talde bortitz gisa aurkeztuz.

Protesta-testuinguruetan gertatutako kasuen %43,5-ean (10 kasutan) erabili da halako indarkeria. Erregistro-prozesuan zehar, hainbat teknika detektatu ditugu. Horietako batzuk agerikoagoak dira, adibidez, giza-kate bat askatzeko buruan kolpeak ematea edo atxilotutako pertsonen eskuak zapaltzea. Beste batzuk, ezkutukoagoak dira, adibidez, lekualdatzeetan auto-bidaia luzatzea eta abiadura azkartzea, atxilotuengan nahasmendua, ezinegona eta beldurra eraginez.

«Habían puesto un ruido brutal que era como de aire pero sonaba la hostia, la hostia, la hostia. Yo, en el momento pensé que qué viejo era el furgón y qué ruido hacía el aire. Y luego me dio por pensar que era igual para aislarte del mundo totalmente y no oír absolutamente nada. Entonces es la sensación de no tener ni idea de a dónde vas, (...) Se veía pero estaba todo cerrado, no había ventanas. Con algo translúcido nos estábamos moviendo a parte de por sentirlo se veía pero era imposible identificar ni dónde estamos ni nada. Tenía la sensación de dar muchas vueltas.»

Horrelako gertaerak ez dira kasualitatea, oster, teknika zehatzei erantzuten dietela dirudi. Esanguratsua da, esaterako, protesta egiten duten ekintzaileengan poliziak eragiten duen nahasmen eta ziurgabetasuna. Adibidez, hasieratik jarrera oso oldarkorra izan eta ondoren negoziatzaileago agertzea, inolako kriterio gabe kide batzuk atxilotu eta komisaldegira eramatea (ekintza berdina eginda) edota manipulazio zuzena erregistratu ditugu.

«(...) también jugaban como al despiste diciendo “hemos hablado con vuestras compañeras de fuera, os están esperando, quieren que salgáis, nos han dicho que quieren que salgáis”. Como intentar convencernos de que fuera no teníamos el apoyo para seguir la resistencia. Como ese juego psicológico un poco. Y era mentira que habían hablado con las personas de fuera.»

Hasierako ataletan argitu dugu, generoari atal bat eskaini ez badiogu ere, paper garrantzitsua duela indarkeria polizialaren auzian. Halaber, militanteen testigantzek berretsi egiten dute hori ere islatzen dela protestetan. Adibidez, militanteen arabera poliziaren jarduna aldatu egiten da honek gorputzengan egiten duen genero-identitate eta adierazpenaren irakurketaren arabera. Gizon-zis gisa irakurtzen diren gorputzen kasuan indarkeria fisikoak ohikogoa dirudi. Emakumeen aurka, aldiz, indarkeria psikologikoa edo umilazioaren erabilera nagusitzen da, batik bat polizia gizonen partetik.

«Como que tenían súper claro ser violentos con los hombres. No tuvieron ninguna duda. Sacaron la porra con ellos justamente, y el resto pues yo creo que fue un poco aleatorio.»

«Jo ninduen Ertzaina gizon bat zen, bere ahotsa oroitzen dut. Mehatxu eta irainen artean uste dut generoak garrantzia duela, esaten zituzten gauzak eta jarrerak lotuak daudelako beraien jarrera misoginoarekin. Ni ihesi eta negarrez nengoen bitartean nire atzetik jarraitzen zuen korrika eta joka. Sadikoa iruditu zitzaidan, ez bainintzen arriskutsua beraientzat.»

Genero-indarkeria ez da tratua gainera desberdintasunera murrizten. Genero-indarkeriak berezko ditu ere, esaterako, LGTBQfobia eta lodifobia. Testigantzek adierazten dute, eraso horiek hori ere aintzat hartu beharko genukeela polizia-indarkeria aztertzerako garaian.

«Uno de mis miedos era que me leyesen como chico y entonces me pegasen como chico, y luego que me leyesen como chica y las violencias que supone ser leída como chica. Entonces, empezaron a dudar y me empecé a tensar y el que tenía el DNI dijo: “no, es una chica”. Que tampoco es verdad, pero bueno, ni ez binarioa naiz, pero bueno.»

«Dijeron que yo pesaba mucho más que las anteriores y que conmigo no podían en tono risa humillante. No lo dijeron así pero fue como: “esta está más gorda, no la podemos sacar, venid más”.»

Amaitzeko, larria bezain esanguratsua iruditu zaigu Guztiontzako Egiak antolatutako konzentrazio baten ostean, ekintza amaitu eta ordu batzuetara, poliziak partaideetako bati egindako mehatxua. Partaide honekin gertatzen den bezala, arrazializatutako pertsonen gaineko mehatxuak bereziki desmobilizatzaileak dira, zenbaitetan kasuan euren egoera administratiboa ezegonkorra den aldetik.

«Kontzentrazioaren ostean gelditu zuten, eta galdetu zioten “tú qué, ¿qué problema tienes con la policía?”, eta erakutsi omen zizkieten egun horretako bideo eta argazki batzuk, non bera ere agertzen den y como señalándole. Y algún tipo de amenazas, no que tenga cuidado, baina “que sabemos que andas en esto”.» – Partaide honek “-policía +recursos sociales” zioen kartela zeraman kontzentrazioan.

Bizitzaren gaineko kontrola

Ekintza publikoen aurka egindako gertaerak ez dira poliziak militanteak "erre", nekatu edo desmobilizatzeko darabilzkien teknika bakarrak. Militanteek beren bizitzekiko kontrola ere salatu dute. Besteak beste, militanteen jarraipen teknologiko zein fisikoen, militanteen bizitzaren gaineko informazio metaketan edota, zuzenean, egunerokoan egin diren eraso batzuen bidez.

Bestela esanda, polizia espero ez dugun eremuetan sartu eta gure bizitzaren gaineko kontrola dutela adierazten du. Bide honetatik, kontrolak berezko duen beldurra eraginez erasotzen gaitu. Hainbat militante azaldu digute memorian geratzen zaien sentazio nagusia zera dela: poliziak egoera zaurgarrienean ere botere-erakustaldi bat egiten duela. "Nahi dutena egin dezakete nirekin" edo haien indarrak "mugarik ez" duela. Poliziak bizitzaren gainean duen kontrolaren adibide diren hainbat gertaera kontatu dizkigute. Hona hemen horretarako erabilitako baliabide eta tekniketako batzuk.

Kamerak

Sarreran aipatu dugu "poliziaren modernizazioa" eta "eredu prediktiboa" ez direla, inondik inora, inofentsiboak. Teknologia berrien bidezko zelata eta identifikazioa egin ohi du poliziak. Adibidez, kamera eta bideo bidez pertsonen aurpegi eta gorputzen erregistroa egin eta, honekin batera, beraien datu-basea handitu. Grabaketa horiek ekintza publikoetako militanteak identifikatzeko erabiltzen dira askotan. Kontua zera da, guk espero gabe eta zuzeneko identifikaziorik gabe, bideo edo argazkien bidezko identifikazioen ondotik isunak iristen direla.

Ezizenak

Militante batzuek adierazi dute hainbat ertzainek ezizenez izendatzen dituztela. Ezizen horiek ematen dute aditzera nolabaiteko zelata: agenteek argi dute nortzuk diren eta bereizi egiten dituzte bata bestearengandik. Pertsonen kontrola suposatzeaz gain, ezizen horiek pertsona horien aurkakoak izaten dira. Gorputz, identitate eta orientazio sexualaz baliatuz ezizen despektiboak ezartzen dituzte: "narizota" eta "bujarra", adibidez.

Intimidazioa

Intimidazioa ere azpimarratu dute militanteek. Batzuen kasuan, Ertzaintzaren deiak iristen zaizkie komisaldegitik, bertara joateko esanez. Jazarpen bat izan ohi da, hiru edo lau dei egun berean. Batzuetan, informazio askorik eman gabe, besterik gabe zerbait notifikatu behar dietela esaten diete. Beste intimidazio teknika bat mobilizazioen ostean militanteak jarraitzea izan da. Adibide bezala, jaso dugu behin mobilizazioa amaituta eta iadanik militanteak euren egunerokoan zeudela, "ezagutzen zaitugu" bezalakoak bota dizkietela.

Opakotasuna eta anaitasuna

Azkenik, militanteen testigantzetatik azpimarratzeko modukoak diren poliziaren beste bi aurpegi aipatu nahi genituzke. Horiek dira opakotasuna eta anaitasuna. Zeren ez da gauza berria poliziak hainbat egoeretan publikorik nahi ez izatea. Baina, zer du poliziak ezkutatzeko? Ematen du polizia eta opakotasuna elkarrekin doazen kontzeptuak direla. Horren adibide izan ditugu hainbat armaren inguruan eskatutako potokoloen inguruko isiltasuna edo mass-medietan zabaldutako jipoi batzuen inguruko informaziorik ez izatea. Halaber, protesten kasuan, jaso dugu polizia ahalegindu dela ahalik eta modu diskretuenean jokatzeko. Aquariumeko kasuko militante baten hitzetan, badirudi publikoaren argitara kostatzen ala kostatzen zela nahi zutela Aquariumaren irudia zikinduko lukeen ezer.

Protesta horretan bertan, gertaera erregistratzen zebilen kazetaria kanporatu zuten. Ekintzaileek adierazi dute "salduta" sentitu zirela une horretan, edozer gerta zitekeelako eta inork lekukotza grafikorik erregistratuko ez zuelako. Eta ekintzaileak atera behar zituztenean ere, ahalik eta modu isilpekoenean egin zuten hori, atzeko ateak baliatuz.

«Evitar esas dos cosas juntas: Policía y Aquarium,... nos sacaron por detrás, y que no lo viera nadie»

«Cuando llega la policía, se identifica como prensa y le dicen que si no sale del Aquarium en el momento en el que la policía ha dicho que van a desalojar el espacio, va a ser automáticamente parte de nuestro grupo.»

Opakotasunaz gain, polizien arteko konplizitate eta anaitasuna dira indarkeriaren erabilerarako beste klabeetako bat. Militanteek ere seinalatu digute hori. Esate baterako, bizitzaren gaineko kontrolaren inguruan aipatutako gertaeretan, jakin dugu askotan polizia talde konkretu batek egiten dituela honelako praktikak. Hala ere, polizien arteko babesik gabe ezingo litzake hori dena sostengatu. Ildo beretik, komisaldegian, furgonetan eta kalean indarkeria kasuak errelatatu dizkigutenean, kontatu digute ere ohikoa dela indarkeria gordina erabiltzen duten polizien ondoan horrekin eroso ez dauden edo autoritatea torpeki erabiltzen duten polizia nobatoak egotea. Horiexek ez dute askorik egiten indarkeria ekiditeko eta beraz, konplize ere badira. Hemen ez dago sagar ustelik, hemen aipatu dugun guztia ezingo litzateke aurrera eramanez ingurukoek onartuko ez balute. Anaitasun hori ez da konplizitate edo afektu partikularren kontu batera murrizten. Poliziak berak egituratik eragiten eta bilatzen duen zerbait da.

4.IV. INDARKERIA ERREAKTIBOA

lazko txostenean honela ezaugarritu genuen indarkeria erreaktiboa: “bizilagunen elkar babeserako jarreraren aurka poliziak erabilitako indarkeria”. Indarkeria mota hau da, hain zuzen ere, norbaitek poliziaren indarkeriaren lekuko izatean edota egoerari aurre egiten ahalegintzean pairatu dezakeena.

Indarkeria polizialari erreakzionatzea konpromiso militante bat da. Isolatuta duen inpaktua mugatua izan daitekeen arren, poliziaren gehiegikeriari aurre egiteko kultura soziala zabaltzeko pauso bat izan daiteke. Baita elkarren artean babestu, saretu eta gure komunitateak indartzeko ere. Indarkeria erreaktiboak erresistentzia eta elkar babes hori disuaditzea du helburu, baita poliziaren indarkeriaren inguruko informazioaren zabalpena eta salaketa oztopatzea ere.

Horren harira, Txagotik gogora ekarri nahi dugu administrazioetik zenbaitetan zabaldu den “polizia ezin dela grabatu” dioen baieztapena faltsua dela. Mozal Legearen onarpenaren ostean, poliziaren “irudi, datu pertsonal edo profesionalen zabalkundea” zigortzen da, baldin eta “agenteen segurtasun pertsonal edo familiarra kalte badezakete”, eta betiere “informaziorako eskubidea errespetatuz” (4/2015 Lege Organikoa, 36.23. artikulua). Horregatik, eskuhartze bat grabatzen ikusten bazaituzte identifikatzea legala litzatekeen arren, ondoren irudi horiek zabaldu eta agentearen segurtasuna kaltetzen dutela frogatuko balitz bakarrik zigortu zaitzakete. 2023an zehar estatu osoan, 92 isun baino ez ziren jarri artikulua honetan oinarrituta (Kriminalitatearen Estatistika-Ataria, Segurtasuneko Estatu-Idazkaritza).

Hori horrela izanik ere, poliziak sistematikoki erasotzen du erresistentzia tresna honen aurka. Aurtengo txostenean indarkeria polizial erreaktiboari lotutako 8 kasu jaso ditugu. Poliziaren eskuhartzea grabatzea legala –eta gehituko dugu, legítimo ere– denez gero, bestelako zigorrak ere erabiltzen ditu administrazioak herritarren aurka indarkeria erreaktiboa erabiltzeko.

«Doce ertzainas estaban deteniendo a un chaval marroquí, y como le estaban golpeando muy brutalmente yo me puse a hacer el gesto de grabar, que no grabé porque no tenía memoria (...) me dijo que dejara de grabar, pero yo continué haciendo como que grababa (...). Él me dijo que me iba a sancionar, pero yo le dije que no estaba haciendo nada que pudiera sancionar (...). He visto que me metieron en mi carpeta del gobierno vasco una multa de 600€, diciendo que yo me acerqué más cuando él me dijo que me acercara»
–Desobedientziagatik zigortutako herritar bat.

Gisa honetako autodefentsa honen aurkako indarkeria ez da buroerrepresiora mugatzen. Biolentzia psikofisikoa ere erabili dute indarkeria erreaktibo gisa. Honen harira, bereziki larria iruditzen zaigu Martuteneko eskolan jazotako gertakari bat.

«Furgona pila bat ikusi zituzten martuteneko eskolara igotzen eta gazte etorkinekin ez pasatzeko lau lagun zuri hurbildu ginen bertara. Atzeko bide batetik sartu ginen fondoraino, galdetu genien anbulantziakoei aber zer ari zen gertatzen eta ertzaintzak agertu ziren: “*qué haceis aquí?*”. Juteko esan ziguten, hor gure lagunak zeudela azaldurik giroa tentsionatu zen. Lagunetako batek beste bide bat hartu eta korrika etorri zen, sekreta batek jo zuela leku ilun batean eta bertan tentsioa igo eta jipoitzen hasi ziren. Momentu batetik aurrera joan behar ginela esatetik jipoitzera pasa ziren, eskolatik bota arte. Lagun bat han geratu zen, gainean bota zitzaizkien eta atxilotu zuten. “betaurrekoak apurtuko dizkizut”; eta horrelako mehatxuak esaten zizkidaten. Hortik bota gintuzten eta lagunetako batek antsietate atake bat zuen. Kanpoan identifikatu gintuzten eta laguna atxilotu zutela esan.»

4.V. POLIZIA ETA OSASUN MENTALA

Gure gizarte kapatizistaren oinarrietako bat dira “kuerdismoak”. Kriminalitatearen antzera, zorotasuna zuzendu, osatu eta zigortu behar den zerbait dela ulertu ohi da. Honetarako kartzelak diren psikiatrikoak, kontentzio fisikoak, gehiegizko medikalizazioa eta beste hainbat errepresio forma erabiltzen dira. Izan ere, guk “polizia” terminoaz gorputz poliziaei egiten badiegu ere erreferentzia, arlo honetan lan poliziala egin dezaketen profesionalak ere badira, adibidez, psikiatra, mediku eta psikologoak. Halaber, geroz eta ohikoagoak dira poliziaren interbentzioak ondoez- edo krisi-egoeraetan.

Badakigu komunitatetan hainbat gatazka kudeatzeko tresnarik gabe eta zalantza askorekin topatzen garela askotan, baina honek ezin du justifikatu egoera hauen kudeaketa zuzenean polizializatzeak, edota gorputz batzuen gaineko indarkeriaren erabilera. Honen adibide konkretu baten salaketa ekarri nahi dugu: Astigarragan ertzaintzaren Bizkor unitateak egindako “kudeaketa”.

Geure burua babesteari begira, ezin dugu baieztatu gertaera honetan Ertzaintzak pertsona hau hil zuenik. Edonola ere, albisteetan irakur daitekeenaren arabera, argi dagoena zera da: Bizkor unitatearen ardurapean jazo zen heriotza. Gainera, pertsona honen gorpuak taser-pistolen markak zituen eta argazkietan ikus dezakegu pertsonak bizitako interbentzio poliziala indarkeriaz beterikoa izan zela:

«Infiltrado hemorrágico en región frontal y supraciliar derecha que, a tenor de las marcas apreciables en las fotografías, parece producto de golpes con porra que rodean la frente. Y tiene tres costillas rotas y otras dos lesionadas. Expertos en la materia consultados por los allegados de Valdés y que han analizado las imágenes aprecian marcas compatibles con pistola Taser, que dejan una señal muy característica: dos puntos.» (NAIZ, 2024)¹¹.




Krisi-egoeretan ezinbesteko oinarrizkoak izaten dira komunikazio lasaia, espazio pertsonala errespetatzea eta krisi egoeran dagoen pertsonaren beharrak asetzen saiatzea. Ideia horiek ez dira, inondik inora ere, uztargarriak poliziak duen presentzia eta jarduteko moduekin, ezta krisi-egoeren gaineran eraiki den beldur eta arrisku-pertzepzio eta kriminalizazioarekin ere. Minimo horien aurka eginez, interbentzio mota hauetan ohikoak izaten dira buruberoki beltz, kasko, borra, taser pistola eta ezkutuaen erabilera.

[11] <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20240320/astigarraga>








4.VI. POLIZIA ETA ARMAK

Poliziak jipoietarako baliatutako objektuen eta armen artean borrak (27) eta gorputza (35)—adibidez, ukabilkadak eta ostikoak—errepikatu dira gehien. Halaber, erabili dira autoen ateak, aulkiak, eta “arma ez-letal” deritzen foam jaurtigailuak edota taser pistolak ere.









Sarreran aipatu dugunez, poliziaren “modernizazio” prozesuaren parte izan da arma-ez letalen propaganda eta gorazarrea. Institutuzio publikoetatik indarkeria gordinarekiko alternatiba gisa aurkeztu ohi dira. Hau da, poliziaren metodo seguru eta “suabeago” bat direla eta, beraz, azkenburuan horien bidez indarkeria poliziala gutxituko dela. Arma letal/arma-ez letal dikotomia, ordea, dikotomia tranpatia da. Gure historia gertukoan baditugu arma “ez-letal” deritzenekin poliziak erail –2012 hartan Iñigo Cabacas– zein larriki zauritu dituen pertsonak. Esate baterako, txosten hau argitaratu baino aste eskas batzuk atzera, jakin dugu 2025eko otsailaren 1ean Ertzaintzak konorterik gabe utzi arte jipoitu eta atxilotu ostean, ZIUan amaitu zuela emakume batek Donostian.

2024ean ere gertatu dira hainbat kontu. Jasotako datuen arabera, gutxienez 3 pertsona erasotu dituzte 2024ean taser pistola erabiliz, horietako batetan heriotzarekin amaitu zuelarik polizia esku-hartzeak. Foam jaurtigailuekin ere 3 pertsona zauritu zituen Ertzaintzak, eta horietako bik ondorio larriak izan dituzte. Azkenik, borrararen erabilera erregistratu dugu jasotako 27 gertaeretan.

ZAURI ETA KOLPE MOTAK

Irudiak Istanbul protokolitik atera ditugu. Naciones Unidas (2022). *Protocolo de Estambul: Manual para la investigación y documentación eficaces de la tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes*. Ginebra: Oficina del alto comisionado de las Naciones Unidas.

KOLPEEN MAIZTASUNA

Maiztasuna: testigantza ezberdinetan gorputzeko eremu berdinak mindu izana: 1 testigantza bakarrean jasota, 2 bi testigantzan jasota...

Gorputza


Gure erregistroan gehien nabarmentzen diren armak borra luzagarriak eta gorputza dira. Zeren bai, guk poliziek gorputza erabiliz egindako erasoak armekin batera erregistratu ditugu. Izan ere, polizien gorputza ez da entitate fisiko soil bat. Ostera, poliziak arma gisa erabiltzen du eta duela mende batzuetatik hona gorputza objektu eta botere-leku gisa ulertu eta modulatu izanari erantzuten dio. Polizien gorputza gorputz manipulable eta obediente gisa agertzen den neurrian, kontrol erregimen zorrotz baten baitan landu eta hezitu den gorputza da.

Zentzu horretan, disziplinamendu zorrotz batek zeharkatzen ditu polizien gorputzak. Diziplina horiek indarra eta ahalmena aregautzeaz gain, batetik, tresna baliagarri bezala konfiguratzen ditu. Bestetik, gorputzen obedientzia landu ahala, gorputzaren bestelako potentziak deuseztatu eta baliogabetu ere egiten ditu. Hala, gorputzaren ahalmen eta dimentsioak obedientzia- eta utilitate-erlazio batera mugatzen dira. Hau da, gorputzari utilitate eta obedientzia erlazio hori inposatzen zaio: honen ahalmenak helburu horietara murriztea bilatzen da. Gymbro logikak berretsi egiten du hori. Batetik, gorputza zatika bijilatu eta zeharkatzen du, estereotipo zisheterosexualetan oinarritutako militarizazio eta obedientzia-erregimen bat inposatzen dio eta tankera indartsua hobesten duen estetika maskulinista sustatzen da. Honekin batera, utilitatea ez duten eta zaugarritasuna bere duten gorputzaren gainerako dimentsio oro deuseztatzea bilatzen du.

Jaurtigailuak, foam-pistolak eta taserrak

Inportantea da poliziaren armei eta ekipamenduari arreta eskaintzea, ez baita erraza beti zein armekin erasotzen duten identifikatzea. Esate baterako, heldu zaigun bizipenetako batean ez dugu garbi izan ea zein motatako arma egon zen tarteko. Kontua da gizon bat kalean zela oihuka, eskuetan objektu bat zuelarik. Lekukoen ustez, bazirudien brote psikotiko bat izaten ari zela. Nahiz eta, osasun mentalaren atalean argitu dugun modun, ezin dugun hori baietsi, gerta zitekeelako ere bizilagunek jarrera antisozial bat eromen gisa interpretatu izana. Edonola ere, poliziaren eskuartze bat egon zen: Udaltzain talde batek izan zuen inguratuta pertsona hori Ertzaintza heldu zen arte. Ertzainek, ezkutu eta armekin –suzkoak barne– hari apuntatu eta oihuka zerbait esan zioten. Gizonak beste oihu batekin erantzutean, tiro bat ikusi zen, eta gizona zerraldo erori lurrera, garrasika. Ez dago argi zein motatako armarekin izan zen, baina, edonola ere, tiro egin zioten sabelean.

Foam jaurtigailuekin ere egon dira 2024 honetan kasu larri, zein sonatu batzuk. Esate baterako, Tolosako inauterietan Ertzaintzak jaurtitako foamezko bala baten ondorioz eskuin begian ikusmena galdu zuen gaztea. Edota Donostian, Errealaren partidu baten ostean, buruan inpaktua jaso eta ZIUan amaitu zuen emakumearen kasua. Guk, aurtengo txostenean 3 bizipen erregistratu ditugu.



*Distantziako armak desberdintzen lagun dezakeen marrazki bat.

Taser-pistolek okupatu dituzte 2024eko hainbat titular medioetan. Osasun-mentalari eskainitako atalean bildu dugu 2024eko otsailaren 2an Ertzaintzaren Bizkor unitateen eskuetan hil zen pertsonaren kasua. Halaber, jaso ditugu oihartzunik izan ez duten beste 3 bizipen. Esaterako, ekainaren 26ean Intxaurrendon sei gazte kolpatu zituzten hamasei Ertzainen artean. Lurrean jipoitzeaz gain, taser pistolekin ere erasotu zituzten. Gazteak lurrean garrasika ari ziren, oinazean, lekuko baten hitzetan. Azkenean, horietkao bi atxilotu eta gaua kalabojoan pasatu zuten, baldintza penagarrietan, nahiz eta ez zieten inongo kausarik esleitu (alegia, buroerrepresioa ere jasan zuten).

«Aurkitu ditut taserraren mobidako bi gazte eta esan didate biei eman zietela taserrarekin. Izan zen Intxaurrendoko Renfe ondoan, nola dagoen rektu guzti hori, *que no hay nadie ahí, pues que le dieron ahí*. Dituzte markak eskuetan eta horrela *de las esposas*, eta gero gorputzean ere bai. Gero, eraman zituzten kalabozora *y no los pasaron por el juzgado ni les pusieron ninguna causa*. Osea, *que los soltaron sin más*. Eta gero kalabojoan ere *bastante... bastante mal*. Pues en el suelo, sin mantas... Sin nada. Eta hori.»

ONDORIOAK

Txosten hau ehundu ahala praktika instituzional batzuk zein modutara agertzen eta birformulatzen diren ikusi ahal izan dugu, beste urtebetez. Nola Donostian egunerokoaren parte den indarkeria polizialak –berezko dituen aurpegi eta forma anitzekin— hiria kontrolatu eta bijilatu beharreko territorio batean bilakatzen duen. Testuinguru global, aldakor eta lauso baten baitan, biolentziaren monopolio legitimo baten (eta, aldi berean, estatu-nazio modernoak berezko duen) ideia marko polizial eta mugatiarra osatzen duten diskurtso eta instantzia desberdinetan barreiatzen da. Honen emaitzetako bat zera da: elkarrekin gurutzatuta dauden hainbat biolentzia jariakorrek zeharkatzen dute espazio publikoa. Biolentzia horiexek gorputz eta espazio zehatzetan materializatzen dira. Eta hori dena, gure begien parean gertatzen da. Bai hiritarren indiferentziak, estatu eta instituzioen babesak, zein poliziak berezko duen opakotasunaren aterpeak gotortuta.

Indarkeria horri eta berau egikaritzen duten praktikei so egitea kruziala da, neurri batean horixe du txosten honek eta Txagoren erregistroak helburu. Inportantea da polizia benetan zertan den eta zertan dabilen begiratzea. Alabaina, ez edozein modutan. Batetik, indarkeria poliziala azaleratu eta hori salatzeke ariketa ezin da biolentziaren asuntzio indibidual batera mugatu. Bestetik, kruziala da geure begirada bera ere auzitan jartzea. Bereziki, ezinbestekoa deritzogu erregistratutako bizipenen bidelaguntzaren markoan arreta jarri eta horixe bera aletzea. Zentzu honetan, guk biolentzia poliziala ezaugarritu eta honi heltzeko tresnak eskaini nahi genituzke, baina indarkeria horrexek zeharkatzen dituen ahots horietatik abiatuta. Kaleko pertsonen, pertsona migratuen eta bidelagun diren horien lekukotzek informazioa ematen dute esparru komunitariotik dinamika horiei nola heldu zaien ikusteko. Eta errealitateak biolentzien kargu-hartze, salaketa, lanketa eta bidelaguntzan instituzioen begirada asistentzialista eta multikultural hegemoniko baten presentzia ematen du aditzera. Honek, besteak beste, zentroan behar luketen ahots horiexek hiriko espazio autonomoetatik at zokoratzea dakar. Hori horrela, hemen bildu diren eta bildu ez diren errelatoei agentzia eskaini nahi diegu, eta bide horretatik eraiki estatuen biolentziari aurre egiteko kruzialak diren estrategia kolektibo eta sare komunitarioak.

ERANSKINAK

ESTATUAREN INDARKERIA ERREGISTRATZEKO TRESNA ETA KOLEKTIBOAK**—Polizia indarkeria arrazistaren aurkako sarea (Bilbo)—**Harremanetarako: fitxak.aps@proton.meInfo+: [Nos organizamos ante el abuso policial racista - El Salto](#)**—Sumintrans - Gurutzetako GIU-en biolentziak salatzeako trans kolektiboa (Bilbo)—**Harremanetarako: sumin.trans.eh@gmail.comInstagrama: [@sumintrans](#)**—Salhaketa - Presoen aldeko elkartea (Araba)—**Harremanetarako: araba@salhaketa.orgInfo+: <https://www.salhaketa.org/>**—Salhaketa - Presoen aldeko elkartea (Nafarroa)—**Harremanetarako: salhaketa.nafarroa@gmail.comInfo+: <https://www.salhaketa-nafarroa.com/>**—Erratiko Camino - Polizia indarkeria arrazistaren aurkako kolektiboa (toki zehatzik gabe)—**Harremanetarako: erratikocamino@gmail.comInstagrama: [@erratikocamino](#)**—Defender a quien defiende - Protesta testuinguruko errepresioaren aurkako plataforma (estatu mailan)—**Harremanetarako: <https://defenderaquiendefiende.org/contacto/>Info+: <https://defenderaquiendefiende.org/>**—Putxs en lucha - Sexu langileen eskubideen aldeko kolektiboa (estatu mailan)—**Harremanetarako: putxsenlucha@gmail.comInfo+: <https://putxsenlucha.wordpress.com/>X kontua: [@Putxsenlucha](#)

POLIZIA INDARKERIAREN ERREGISTRORAKO GALDETEGIA

Info orokorra

GENERO-IDENTITATEA:	Gizon zisa
	Emakume zisa
	Trans fem
	Trans mask
	Queer
	Ez bitarra
	Marika
	Bollera
	Bestelakoa
NAZIONALITATEA	
ADINA	
DATA uuuu/hh/ee	
ORDUA oo:mm:ss	
GERTAERAREN IRAUPENA oo:mm:ss	

KOKAPEN ZEHATZA:

TENPERATURA	1 Epela
	2 beroa
	3 hotza
EGURALDIA	1 lainotua
	2 euria
	3 eguzkia
ARGIA	1 argia
	2 iluna
	3 ezer

LEKUKOAK:

POLIZIA MOTA

Ertzaintza	
Udaltzaingoa	
Guardia zibila	
Polizia nazionala	
Segurtasun pribatua	
Desokupa	
Gendarmeak	
Militarrak	

POLIZIA KOPURUA:

TOKIA / TESTUINGURUA

Komisaldegia	
Kartzela	
Osasun zentroa	
Poliziaren kotxea	
Publiko irekia	
Publiko itxia	
Pribatu itxia	
Pribatu irekia	
Ezcutua	

GERTAERAREN LABURPENA :

POLIZIAREN JANZKERA

Sekreta	
Unifformatua	
Antidisturbioa	
Janzkera berezia	

POLIZIAN ANTZEMANDAKO GENEROA

Polizia gizona	
Polizia ez gizona	

POLIZIAREN JARRERA	Lasaia	
	Oldarkorra	
	Urduria	

INDARKERIAREN ERABILERA

Kolpeak gorputzean	
Kolpeak inguruan	
Identifikazioa	
Norbere gauzak kentzea	
Miaketa	
Atxiloketa	
Irainak eta umilazioa	
Mehatxuak	
Manipulazioa	
Buroerrepresioa	
Teknologia berrien erabilera	
Sexu-indarkeria	
Polizia infiltratzea	
Poliziaren zelatatzea	
Bestelakoa	

IRAKURKETA

Arrazakeria	
Klasismoa	
LGBTIfobia	
Matxismoa	
Kapazitismoa	
Protestaren kriminalizazioa	
Aporofobia	
Erreaktibo	
Autoritarismoa	
Bizilekuan oinarritua	
Osasun mentala	
Zehaztu gabea	

ARMAK

Suzko armak	
Porra	
Foam jaurtigailua	
Gomazko bala jaurtigailua	
Taser pistola	
Gorputza	

OHARRAK:

Harrizko lehoi buru eta aingerutxodun zubiak, egunean birritan ureztatzen den bulebarra, neurrira kimatutako belartxarrak eta baranda zuriak, bereziki zuriak. Jarri tertziopelozko alfonbra gorriak zementuaren gainean, ez baita debalde ateratzen hiriaren disdira. Kontrola, zelata eta indarkeria, bere eskaparatearen prezioaren parte ditu Donostiak. Kalea txukun-txukun atondu eta urrezko lazo eder batekin eskaini diezaion putreari agintariak merkantzia.

Kantoi bakoitzean topatuko duzu agente bana eta arkupeetan pintaketa faxistak. Euriak ez ditu ezabatuko. Kaleak, ordea, berezko du desobedientzia. Kamera duen zutabearen aterpean, bilatu ezazu begirada konplizea. Isilik nahi gaituzten horien aurrean, hasi ahoz aho erresistentzia. Ahapeka esanak bilaka daitezela garrasi. Arrakalatu espaloia eta atera dadila estoldetan dagoen dena. Karrikaratu dezagun, behingoz, lehen zurrumurru zena. Parean izango gaituzte, osatzen ari gara estrategiak. Kolektibizatu indar eta minak, guk aho batez salatuko dugu eta polizia-indarkeria.

